



## Lehiatu Berria 2021

### LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA – JARRAIBIDEAK

1. **Garrantzitsua:** Laguntza ematen duen ebazpena jaso ondoren ezinbestekoa da **laguntza ONARTZEA** frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

Jardueren justifikazioa teletramitazioaren bidez egin behar da nahitaez; beraz, ez da onartuko paperezko dokumentaziorik.

2. **Egindako inbertsioen dirulaguntza ordaintzeko eskaera dokumentua bete** behar da.

Ordaintzeko eskaerarekin batera honako **dokumentu hauek aurkeztu behar dira** (kasuan kasukoak):

- Egindako jardueren justifikazio-memoria.
- Proiektuaren burutzapenaren justifikazioa, laguntzaren azken ordainketa eskatuz gero.
- Salerosketa gertatu bada, eragiketa frogatzen duen dokumentu publikoaren kopia.
- Eraikuntza berria egin bada, obra berriaren adierazpena.
- Inbertsioak obra zibilarrekin egin badira, obra egiteko lizentzia.
- Inbertsioa egin dela frogatzen duten **FAKTURAK ETA ORDAINAGIRIAK. (EGIN DIREN INBERTSIO GUZTIAK FITXATEGI BAKAR BATEAN sartu behar dira, eta ordainagiri bakoitza bere fakturaren ondoren agertu behar da)**
- Behar den foru ogasunarekiko edota Estatuko ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean daudelako ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu direla frogatzen duen ziurtagiria.
- Gastu-motaren arabera edo espedientearen balorazioaren arabera eskatu daitezkeen gainerako dokumentu zehatz guztiak (enpleguaren sorkuntza, etab...)

3. Fakturen datuak **“Excel” fitxategi batean** aurkeztu behar dira, egindako inbertsioen arabera antolatuta. Fitxategia horretarako berriaz prestatutako ereduaren arabera izan behar da.

**OHARRA:** Justifikazioa bidali aurretik egiaztatu eskaneatutako dokumentu guztiak ondo irakurtzen direla eta orientazio egokian eskaneatuta daudela.